

## KIRURGIA IREKI BIDEZKO NEFREKTOMIA PARTZIALA EGITEKO BAIMEN INFORMATUA CONSENTIMIENTO INFORMADO PARA NEFRECTOMÍA PARCIAL VIA ABIERTA

### A. IDENTIFIKAZIOA:

MEDIKU            ARDURADUNAREN            IZENA:  
..... Data: .....

### B. INFORMAZIOA:

Teknika honen bidez, giltzurrunaren alde gaixoa erausi nahi da (tumore gaiztoa edo lesioa), sendatzeko edo arintzeko asmoarekin. Batzuetan, ondoko gongoilak erazten dira (linfadenektomia erregionala). Batzuetan, ebakuntza egin behar izaten da kaltetutako kaba benan, tronboa erazteko. Ebakuntza tamaina eta kokagune jakineko tumore gaizto bat tratatzeko egin ohi da, eta kaltetutako giltzurrunaren alde kentzeko eta giltzurrun-ehunaren ahalik eta kopururik handiena mantentzeko aukera eman du. Ebakidurak abdomenean, inguru torakoabdominean edo gerrialdean egin ohi dira, tamainaren, kokalekuaren eta lesioen arabera.

Prozedura anestesia orokorrarekin egiten da, eta ebakuntza egin bitartean edo ondoren baliteke odola eta/edo hemoderibatuak erabili behar izatea; horren inguruko arriskuez anesthesiako zerbitzuak informatuko zaitu.

Ebakuntza ondorengo aldia luzea izan ohi da eta, denbora horretan, zunda eta/edo drainadurak kenduko dira, progresiboki.

### C. ARRISKUAK ETA KONPLIKAZIOAK:

Konplikazioak ager daitezke, bai edozein ebakuntzatan ager daitezkeenak bai prozedura honexeri dagozkionak:

- Giltzurruna partzialki eraztea ez lortzea, eta nefrektomia erradikala egin behar izatea (alegia, giltzurruna osorik erausi behar izatea), eta aurretiko sintomatologiak, lehen bezalaxe, edo partzialki, jarraitzea.
- Odoljario geldiezina, prozedura egin bitartean zein ondoren, oso larria izan daitekeena.
- Abdomeneko konplikazioak, abdomena ireki izanaren ondorioz (hesteetako paralisi iragankor edo iraunkorra, ebakuntzak egitea dakarren heste-butxadura, peritonitisa -hesteetako barrunbearen infekzioa-, bisturi elektrikoaren ondoriozko hesteetako lesioak).
- Toraxa irekitzearen ondoriozko biriketako konplikazioak, hurbiltasunagatik: pneumonia; odola bular-barrunbean; pneumotoraxa edo airea bular-barrunbean; pleura-barrunbearen infekzio masiboa; hernia diafragmatikoa; paralisi diafragmatikoa, nerbio frenikoaren lesioagatik, arnas-ondorioekin (larriak edo ez hain larriak). Konplikazio horiek oso larriak izan daitezke.

### A. IDENTIFICACIÓN:

NOMBRE            DEL            MEDICO            RESPONSABLE:  
..... Fecha: .....

### B. INFORMACIÓN:

Mediante esta técnica se extirpa la zona enferma del riñón (un tumor maligno o lesión) con intención curativa o paliativa. En ocasiones se extirpan los ganglios próximos (linfadenectomía regional). A veces es necesario actuar sobre la vena cava afectada para la extirpación del trombo. La intervención suele realizarse para tratar un tumor maligno de tamaño y localización concreta y permite eliminar la parte del riñón afectada intentando conservar la máxima cantidad posible de tejido renal. Las incisiones más habituales son a través de abdomen, zona toracoabdominal o lumbar, en función del tamaño, localización y lesiones.

Requiere la administración de anestesia general y es posible que durante o después de la intervención sea necesaria la utilización de sangre y/o hemoderivados, de cuyos riesgos le informará el Servicio de Anestesia.

El postoperatorio normal es prolongado y durante este tiempo se irán retirando progresivamente las sondas y/o drenajes.

### C. RIESGOS Y COMPLICACIONES:

Pueden presentarse complicaciones, tanto las comunes de toda intervención, como específicos del procedimiento:

- No conseguir la extirpación parcial y tener que realizar una nefrectomía radical (extirpación de todo el riñón) y persistencia de la sintomatología previa total o parcial.
- Hemorragia incoercible (irrefrenable), tanto durante el acto quirúrgico como en el postoperatorio que puede ser muy grave.
- Complicaciones abdominales como consecuencia de la apertura del abdomen (parálisis intestinal pasajera o persistente, obstrucción intestinal que precise la práctica de intervenciones, peritonitis o infección de la cavidad intestinal, lesiones intestinales secundarias al bisturí eléctrico.).
- Complicaciones pulmonares como consecuencia de la apertura del tórax por contigüidad: neumonía; sangrado en la cavidad torácica; neumotórax o aire en la cavidad torácica; infección masiva de la cavidad pleural; hernia diafragmática; parálisis diafragmática por lesión del nervio frénico con repercusiones respiratorias más o menos graves. Estas complicaciones pueden llegar a ser muy graves.

- Zauri kirurgikoari lotutako arazo eta konplikazioak (larritasun-maila aldakorreko infekzioa, jostura-dehizsentzia -irekitzea-, fistula iraunkorrek edo aldi baterakoak, aurreko konplikazioetatik edo orbaintze-prozesu anormaletatik eratorritako akats estetikoak).
- Jostura-materialekiko intolerantzia; baliteke beste ebakuntza bat behar izatea, materialok erauzteko.
- Neuralgiak -nerbio-minak-, hiperestesiak -sentikortasuna handitzea- edo hipoestesiak -sentikortasuna gutxitzea-.
- Fistulak, manipulazioak, KIRURGIA IREKI BIDEZKO NEFREKTOMIA PARTZIALA edo are nefrektomia osoa ere egin beharra ekar dezaketenak.
- Aorta eta giltzurruneko arterien lesio baskular larriak; odoljariora eragin dezaketen lesio benosoak; lesio ureteralak, konponbide endourológico (endoscopia) edo kirurgikoen beharra ekar dezaketenak; linfozelea (kistea likido linfatikoarekin), eta beharbada gain-infekzioa; iraupen aldakorreko linforragia iraunkorra (likido linfatikoa ateratzea).
- Tronboembolismo benoso sakonak, edo biriketakoak; larritasuna prozesuaren intentsitateari dago lotuta.
- Odoljario digestiboak; ez dira ohikoak baina ager daitezke neurri profilaktikoak hartu arren; larritasuna intentsitateari dago lotuta.

Konplikazio horiek tratamendu medikoarekin (sendagaiak, serumak eta tankerakoak) konpondu ohi dira, baina beharrezkoa izan daiteke beste ebakuntza bat egitea, normalean urgentziaz. Hiltzeko arriskua ere badago.

OSPITALEAK BEHAR DIREN BITARTEKOAK IZANGO DITU PREST, GERTA DAITEZKEEN KONPLIKAZIOAK TRATATZEKO.

#### **D. ESAN IEZAGUZU:**

Halakorik baduzu, esan behar diguzu: medikamentuekiko alergiak, koagulazioaren asaldurak, bihotz-biriketako gaixotasunak, protesiak, taupada-markagailuak, egungo medikazioa, edo beste edozein kontu; izan ere, arriskuen edo konplikazioen maiztasuna edo larritasuna handiagoa izan daiteke haien eraginez.

#### **E. ARRISKU PERTSONALAK:**

Egoera pertsonal jakin batzuek eta gaixotasunek (diabetesa, arteria-hipertentsioa, anemia...) arriskuen edo konplikazioen maiztasuna edo larritasuna areagotu dezakete. Medikuak eman dizu zure kasuan dauden arrisku zehatzen berri.

#### **F. ORDEZKO AUKERAK:**

Giltzurruneko lesioaren irrati-maiztasuna edo nefrektomia erradikala. Erradioterapia, kimioterapia edo immunoterapia tratamendu aringarriak dira.

- Problemas y complicaciones derivadas de la herida quirúrgica (infección con diferente gravedad, apertura de la herida -dehiscencia de sutura-), fístulas permanentes o temporales, defectos estéticos derivados de algunas de las complicaciones anteriores o procesos cicatriciales anormales.
- Intolerancia a los materiales de sutura que puede llegar incluso a la necesidad de reintervención para su extracción.
- Neuralgias -dolores nerviosos-, hiperestesis -aumento de la sensibilidad- o hipoestesis -disminución de la sensibilidad.
- Fístulas que pueden requerir manipulaciones NEFRECTOMÍA PARCIAL VIA ABIERTA e incluso la nefrectomía completa;
- Lesiones vasculares severas de las arterias aorta, renal, lesiones venosas que pueden dar lugar a hemorragias, lesiones ureterales que pueden requerir soluciones endourológicas (por endoscopia) o quirúrgicas. linfocele (Quiste con líquido linfático) con posibilidad de sobreinfección, linfocrragia (salida de líquido linfático) persistente de duración variable.
- Tromboembolismos venosos profundos o pulmonares cuya gravedad depende de la intensidad del proceso;
- Hemorragias digestivas, infrecuentes a pesar de que se tomen medidas profilácticas y cuya gravedad depende de su intensidad.

Estas complicaciones habitualmente se resuelven con tratamiento médico (medicamentos, sueros...) pero pueden llegar a requerir una reintervención, generalmente de urgencia, incluyendo un riesgo de mortalidad.

EL HOSPITAL PONDRÁ A SU DISPOSICIÓN LOS MEDIOS NECESARIOS PARA TRATAR ESTAS POSIBLES COMPLICACIONES.

#### **D. AVÍSENOS:**

Es necesario que nos advierta de posibles alergias medicamentosas, alteraciones de la coagulación, enfermedades cardiopulmonares, existencia de prótesis, marcapasos, medicaciones actuales o cualquier otra circunstancia, ya que pueden aumentar la frecuencia o la gravedad de riesgos o complicaciones.

#### **E. RIESGOS PERSONALIZADOS:**

Algunas circunstancias personales específicas y enfermedades (diabetes, hipertensión arterial, anemia,...) pueden aumentar la frecuencia o gravedad de riesgos o complicaciones. Su médico le ha informado acerca de los riesgos específicos en su caso.

#### **F. ALTERNATIVAS:**

Radiofrecuencia de la lesión renal o nefrectomía radical. La radioterapia, la quimioterapia o la inmunoterapia son tratamientos paliativos.

**DOKUMENTU HAU SINATZEN DUT ONGI IRAKURRI OSTEAN ETA NIRE ZALANTZAK GALDETU ETA ARGITZEKO AUKERA IZAN OSTEAN. BERAZ, ZER EGIN BEHAR DIDATEN ULERTU ONDOREN, ITXARON DAITEZKEEN EMAITZEN ETA HORTIK ERAGIN DAITEZKEEN ARRISKUEN BERRI IZAN ONDOREN**

**FIRMO ESTE DOCUMENTO DESPUÉS DE HABERLO LEÍDO Y HABER TENIDO LA OPORTUNIDAD DE PREGUNTAR Y ACLARAR MIS DUDAS. POR TANTO, DESPUÉS DE HABER ENTENDIDO LO QUE SE ME VA A HACER, LOS RESULTADOS ESPERADOS Y LOS RIESGOS QUE DE TODO ELLO PUEDAN DERIVARSE.**

**Pazientea/ El Paciente****Pazientearen izen-abizenak**Nombre, dos apellidos  
.....**Sinadura eta data**

Firma y fecha .....

**Medikua/El/La Médico****Medikuaren izen-abizenak eta elkargokide-zk.**Nombre, dos apellidos y nº de colegiado del/de la médico/a  
.....**Sinadura eta data**

Firma y fecha .....

**Ordezkarria: adingabekorik edo pazientearen ezgaitasunik egotekotan / Representante: en caso de incapacidad del paciente o menor de edad****Legezko ordezkariaren izen-abizenak, NAN eta ahaidetasuna**Nombre, dos apellidos, DNI y parentesco del representante legal  
.....**Sinadura eta data**

Firma y fecha .....

**Pazientearen edo legezko ordezkariaren ATZERA EGITEA / DESISTIMIENTO del paciente o representante legal****Adierazitako prozedurapean EZ JARTZEAREN irismena eta arriskuak ulertzen ditut. Eta halako baldintzetan atzera egiteko eskubidea egikaritzen dut.**Comprendo el alcance y los riesgos de NO SOMETERME al procedimiento indicado. Y en tales condiciones ejerzo mi derecho de desistimiento  
.....**Sinadura eta data**

Firma y fecha